



Zenbait lagun atzo Madrilgo Chamartin geltokian, euren trenak noiz irtengo zain.

PACO CAMPOS / EFE

Renfeko hilaren 28 eta 30eko geldialdia ez dute atzera bota

Enpresak atzo aurkeztu proposamena ez dute onartu sindikatuek

Renfeko langileek, sindikatuek deituta, atzo bete zuten geldialdien bigarren eguna, eta hilaren 28 eta 30erako deialdia ere bere horretan utzi dute, enpresak atzo bertan egindako proposamena ez baitute onartu, ziurtazunik gabeko «asmo deklarazio» bat dela esan dute.

Agentziak / Madril

ENPRESAK atzo goizean aurkeztu proposamena ez zuten onartu sindikatuek, eta, ondorioz, Renfeko langileek atzoko iragarrita zuten geldialdia egin egin zuten, bigarren egunez. Gutxienezko zerbitzu bete ziren, eta istilu aipagarriak ez zen izan.

Renfek atzoko bileran proposatu zuen sustapen sistema mailaketa profesionalek banatzea, eta sustapen hori soldata txikiena duten kategorietan hasia. Hori betetzeko, Renfek bi hilabe-

teko epea eskaintzen zuen, langile horien sustapen edo pizgarriak zehazteko. Gainerako sustapenei 1999an zehar ekitea proposatzen zuen enpresak.

Proposamen horietaz gain, erdi mailako eta koadro mailako kategorien adskripzio epea zabaltzea ere proposatu zuen Renfek atzo, 1999ko otsailaren 15a arte hain zuzen. Gaur arteko epea eman zien enpresak sindikatuei proposamena onartzeko, baina mahaian bertan jaso zuen langileen ordezkarien ezezkoa.

UGT eta CCOO sindikatuek

proposamena jaso zuten, baina bileran bertan azaldu zuten enpresaren proposamenak ez duela ezer berririk ekartzen eta ez dela inolako aurrerapausoa geldialdiak hasi aurretik egindako proposamenarekin alderatuta.

CCOOn arabera, atzoko proposamenean ez da jasotzen aurretik soldata txikiena duten langileentzako —txartel-saltzailentzat esaterako— soldata-pizgarriak. Enpresak eskatutako bi hilabeteko epeari buruz, sindikatuek diote ez duela inolako garantiarik aurkeztu, «hori bera aurtengo konbenioan jasotzen baitzen eta ez da bete».

Ondorioz, sindikatuek adierazi dute hilaren 28 eta 30erako iragarritako geldialdiak ez dituztela atzera botako. X

CCOOk proposamen bat aurkeztu du LHKn akordioa lehenbailehen lortzeko

Negoiazioek urtebete iraun arren ez dago enpleguari buruzko akordiorik

Joseba Aiartza / Bilbo

CCOO sindikatuak lehenbailehen amaitu nahi ditu Lan Harremanen Kontseiluko (LHK) negoziazioak, Confesbasken eta sindikatuen artean enpleguari buruzko akordioa lortuta. Helburu horrekin, sindikatuak beste proposamen bat helarazi die LHK-ko kideei.

Proposamen horretan oinarrituta, alde guztien jarrerak hurbiltzea lortu nahi du sindikatuak. Izan ere, negoziazioak hasi zirenetik urtebete igaro denean, oraindik ez dago inolako akordiorik LHK-ko enplegu batzordean.

Proposamen horretan lau atal bereizi ditu CCOOk. Lehenengo-

an ordezkapen kontratuaren nondik norakoak zehazten ditu. Langile gazteak enplegatu eta 60 urtetik gorakoek erretiroa hartzeko operazioaren kostua enpresak, administrazioek eta INEMek hartu beharko lukete bere gain. Langile zaharrek gutxienez soldataren %90 jaso beharko lukete, eta 65 urterekin pentsioaren %100. Gazteen kontratua, berriz, finkoa izatea nahi dute.

Bigarren atala aparteko lanorduei dagokie. Horretaz, ehun langiletik gorako eta hortik beherako enpresak bereizten ditu. Lehenengoetan, halabeharrezko aparteko lanorduak soilik onartzea proposatzen du. Bigarrenetan, berriz, langile bakoitzeko gehie-

nezko ordu kopurua zehaztuko litzateke, atsedendiekin konpentsatuko litzatekeena.

Hirugarren atala 35 lanorduko asteari dagokio. Horretan, Nafarroako Enplegu Egitasmoan jasotako konpromisoaren antzekoa proposatzen du, alegia, helburu horretarako denbora muga bat ezartzea. Bestela, sindikatuak uste du Administrazioak lanorduen murriztea saritu egin beharko lukeela.

Azkenik, CCOOk lanaldia banatu eta enplegua sortzeko neurriak proposatzen ditu, hala nola lan eszedentziak eta baimenak, ikasleentzako praktika aldiak enpresetan eta enplegu sorgune berritakoak sustatzea. X

Frantziako inflazio tasak %0,3ra egin du behera

Soldata %2 eta kontsumoa %5 igo dira

Efe / Paris

FRANTZIAKO Estatuan prezioak egonkor mantendu dira iragan azaroan. Hala, azken hamabi hilabeteetako inflazio tasa %0,3koa da, Parisko estatistika erakundeak (INSEE) jakinarazi duenez.

Azaroko prezioen egonkortasunaren arrazoi nagusia energiaren %0,5eko jaitsiera izan da (%5,2 urtebetean). Zerbitzu publikoak ere %0,4 jaitsi ziren, hala nola hegazkin tarifak; zerbitzu pribatuak, %0,1; osasun zerbitzuak egonkor mantendu ziren, eta elikagaiak %0,2 garestitu ziren.

Era berean, INSEEk jakinarazi du Frantziako langileen soldata %0,5 igo dela urteko hirugarren hiruhilekoan, eta %2 azken hamabi hilabeteetan. Horrenbestez, Frantziako langileen eros-ahalmena %1,6 igo da 1997ko irailetik aurtengora, inflazioa %0,4koa izan baitzen.

Azkenik, kontsumo pribatuak %0,1 egin zuen gora iragan azaroan, eta %5 azken hamabi hilabeteetan. Gorako joera horren arrazoi nagusia autogintza sektorea izan da, arlo horretan salmentak %7,5 igo baitira urritik auzorora; iazko azarotik aurtengora %16koa izan da igoera hori.



**BATZUK LOTSAGARRI
IBILTZEN DIRA**